V.—En el presente trabajo me he de ocupar casi exclusivamente de nombres de ríos de Bizkaya, y no he de ocultar que, además de mis conocimientos más o menos exactos de esta parte del País, de comprobaciones que he efectuado, de referencias y de algunas colaboraciones, me he servido para mis investigaciones del "Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya", ayuda que algunos juzguen tal vez modesta, pero que yo estimo inapreciable y cómoda para este caso—y aun para otros—por darse la circunstancia de que muy a menudo han ido apareciendo en dicho "Boletín" noticias de expedientes promovidos por los propietarios de molinos para inscripción en el "Registro de Aprovechamientos de Aguas" de las que vienen usando para sus industrias, así como de "Actas de Notoriedad" del uso de las mismas, en cuyos expedientes, como es natural, los interesados han tenido buen cuidado de que sus molinos y los ríos o arroyos usados figuren con nombres lo más correctos posible para evitar consecuencias desagradables. De modo que, como quien dice, sin salir de casa y cómodamente, se ha ido uno informando de casi todos los molinos de Bizkaya y de numerosos ríos y arroyos, con datos precisos, que de otra forma hubieran implicado desplazamientos para hacer investigaciones, muchas veces sin éxito, por la resistencia o desconfianza de los propietarios que no comprenden se puedan pedir estos datos desinteresadamente, si no es para poner alguna contribución o impuesto.

VI.—Se me perdonará no presente las materias alfabéticamente, por haberme exigido prescindir de este orden la exposición de mis teorías. Pero al final irá un indice detallado de todos los términos usados, por riguroso orden alfabético.

Y, entrando en materia, veamos lo que dicen los Diccionarios.

1) *ibai, hibai,* río, fleuve, rivière.—Su uso parece que fué común o casi común en todo el País. Hoy, al menos en Bizkaya, se oye en todas partes el erdérico "errio-a", aunque todavía cabe la satisfacción de oír de vez en cuando de boca de iletrados, sobre todo de Txori-Erri, decir: *ibeia,* con acento o tónica en la primera "i",igual que hacemos con la palabra "Bízkaya" cuando hablamos en vascuence. Respecto al caudal de agua que representa esta voz, aunque algunos creen que llamaban así a los ríos caudalosos, he hallado que un arroyo insignificante ha dado en Pedernales el nombre de IBAI a un terreno arbolado bañado por sus aguas. Entre otros varios citaría también al APERRIBAY, afluente del IBAIZABAL en Basauri, que tampoco pasa de ser arroyo. Este mismo IBAIZABAL, uno de los más caudalosos de Bizkaya, ha necesitado agregarle el calificativo de *zabal,* ancho, para hacer denotar su categoría. Como dato curioso he de exponer que leyendo hace unos treinta años un libro publicado por un misionero dominico en el Brasil, encontré bastantes topónimos indígenas que tenían alguna analogía con sus correspondientes voces vascas. Entre ellos, la voz *ibo,* que decía significaba "río", y agregaba a los nombres de los ríos, haciendo, por ejemplo: PARANA-IBO, río Paraná: En otro lugar veo el mismo río escrito: PARANAHIBA, y además PARAHIBA o PARAHYBA, río Pará.

2) *ibaso,* (L).—Lo recogen Azkue y Lhande. Este último le da las siguientes acepciones: "1.ª L (H). fleuve, rivière. Syn.: *ibai.* 2.ª L (H.), au plur. abondance, torrent de.—*Gu gatik odola ixurtzen duzu ibasoz bezala* (Rod). Por nosotros viertes la sangre a torrentes".—Nótese el sufijo "-so" (tal vez sería mejor fijarlo "-as-o") que también se da en la siguiente palabra.

3) *bidaso.*—Según Lhande: "L (H.) fleuve, rivière. Syn.: *ibai.* L. N. *Bidaso mendikoaz edaran gintzazun gorphutzak* (J. Etx. M-H), nous nous abreverions (de l'eau) de la rivière qui descend de la montagne." En cambio Azkue: "*bidaso,* río, fleuve." Y añade: "De este nombre se deriva el del río BIDASOA". Sobre otra opinión acerca del origen de este nombre, V. Michelena, "Ap. Vascos", n.° 160, pág. 55.

4) *urandi, urhandi,* río, rivière.—Voces usadas por los vascos orientales (Azkue). No he podido consultar a Lhande, pues los cuadernos de su Diccionario sólo llegan a la letra "M".

5) *uraitz, uaitz, ugaitz, uhaitz* (voces vasco-orientales), río, rivière. Según Azkue, su etimología es **ur-gaitz,* agua enorme. Será posible, pero conviene estudiar el sufijo "-aitz", "-ats", que se da en otros nombres de río o arroyo.

6) *ualde, ubalde, ugalde, ugelde,* voces orientales que significan río, rivière, según Azkue. En Bizkaya, en toponímicos, UGALDE significa: próximo al río, de la parte del río, ribera.

7) *uar, uhar* (Azkue): "...2.° (Bc) crecida de agua.—...4.° (L), torrente.

8) *uarre, uharre* (Azkue), torrente.

9) *egoatxa* (R-uzt), río rivière (Azkue). Lhande no lo incluye en su Diccionario.

10) *lats* (c. arc). arroyo, ruisseau (Azkue).

11) *latsa.*—C. H. 1.° Cours d'eau dans lequel se jettent plussieurs autres plus petits.—2.° (Oih). Canal.—3.° au plur. reunion de plussieurs ruisseaux pour en former un plus grand: *Ustaritzeko latsak athera dira,* le cours d'eau principal d'Ustaritz a debordé (Lhande).

12) *lats-begi.*—L (H.) endroit le plus profond d'un ruisseau et ou l'eau est dourmante (Lhande).

13) *erreka.*—Sería imperdonable que por escrúpulos puristas dejara de mencionar esta palabra usada hoy, podemos decir, casi exclusivamente en todo el País Vasco para significar "arroyo". Que sea un préstamo del latín o que se trate de una restitución, como pretenden otros, lo cierto es que es voz que tiene carta de naturaleza en el País Vasco desde muy antiguo; y el hecho de que se le hayan agregado buen número de sufijos, unos como diminutivos y otros para expresar otras circunstancias, lo hacen por demás interesante, aunque sólo sea para el estudio de dichos sufijos y su relación con otros elementos genéricos de río, que también los emplean. Veamos una y otros en Azkue:.

Erreka.—1.° (c) barranca; 2.ª (c) álveo de un río o arroyo; 3.ª (c) arroyo... 9.° (Bc) lavadero, sea propiamente arroyo, sea recinto cubierto.

Erraka-gune (AN, BN, R) vallecito, depresión de terreno entre dos ligeras elevaciones. Esta misma significación tienen: *errekarro*

(B), *errekune* (S), y asimismo *errekarte* (B), voz esta última que no he hallado en el DVEF, y cuya significación propia, a mi entender, es la de "encañada, cuenca del arroyo".

Erreka-lingirda (AN), arroyuelo, y con la misma significación: *errekaño* (BN), *errekaxka* (R), *erekaxko* (AN), *errekaxta* (S), *errekaxto* (BN), *erreka-txistor* (G), *erreka-zintzur* (AN) (que además tiene la acepción de: punto estrecho del arroyo), *errekaziztor* (G), *errekazto* (B) *y errekilla* (S).

Otros compuestos usados son: *errekondo* (B), que no trae Azkue, que significa en unos casos, vallecito, paraje cercano al arroyo, y en otros puede ser un sinónimo de *errekarte,* en el que conviene subrayar que el "*-arte*" no quiere decir "entre", sino que tiene la misma significación de "*une*", o sea espacio; y *errekasarro* (B), oído en Amorebieta por "arroyuelo", que tampoco lo trae el DVEF.

Además de las expuestas arriba, la voz *erreka* tiene las siguientes acepciones: raya o ranura del grano de trigo; surcos que se hacen en la tierra para la siembra; raya del peinado y aun toda raya; rastro, traza; rango, categoría; hilera, alineación.

Merece también citarse la voz *erreten,* a la que Azkue da las acepciones de: (Bc, Gc) acequia, regata; (Gc) raya hecha con el peine en la cabeza; (Gc) toda raya.—En confirmación de la primera, tenemos en Durango, el "regato RETENCHU" ("Erretentxu").

Y vamos ahora con mis "hallazgos":

14) **zea.*—Sabía que a la "capitalidad" del modesto municipio de Ereño (B), llamaban "Ceas de Ereño"; pero no me llamó la atención hasta que un día saqué del "Boletín" la siguiente ficha, sugerente, por cierto, y que parece un juego de palabras: "Molino ALDECO-ERROTA", en Ereño, servido por río CEAS; propietario M. ALDECOCEA". Al de poco anoté también un apellido SEAITURRIALDEA. Hay un "San Cristóbal de Cea", ayuntamiento de la provincia de Orense, y es sobradamente conocido el río nombrado "Cea", afluente del Esla, que riega parte de las provincias de León, Valladolid y Zamora. Regiones de ascendencia céltica, ¿tendría acaso razón el señor Gorostiaga que nos hablaba de una invasión de estas gentes por la cuenca de Gernika, en la que se halla también Ereño? Todo hay que tenerlo en cuenta. Asimismo hay otro nombre parecido de río: el "Sella" de Asturias.—Y hojeando a Thalamas Lavandibar, veo que en

su obra "Aspectos de la Vida Profesional Vasca" reproduce en págs. 145-6 el siguiente pasaje de Larramendi:

> "...fueron poco a poco bajándose de los montes las "herrerías, y se establecieron en parajes donde podían "servirse del agua para los ingenios, y desde entonces "se llamaron las herrerías de monte *agarrolas* (debe de "ser equivocación por *agorrolas*. En Jemein (B) existía "una ferrería llamada AGORRIJA), herrerías en seco y "sin agua, a diferencia de las nuevas, que se llamaron "*cearrolas,* herrerías en húmedo."

En efecto, Azkue recoge esta voz "*zearrola* (Corog. Larramendi) ferrería movida por las aguas". Intuiría Larramendi la *humedad* del *zear* de la voz *eze,* húmedo? Pero debería haber escrito "herrerías de vega", si hubiera profundizado algo más su significado. Porque, analicemos la palabra *zear* y descompongámosla en **zea+ar;* ¿verdad que tiene gran analogía con *ibar,* vega, de **iba(i)+ar?* De donde resultaría que IBARROLA no es "molino de "la" vega", sino "molino de vega", que es parecido, pero no lo mismo.—Examinando topónimos compuestos de **zea,* se ve que también se vale de "aran" para expresar la misma idea de "vega, ribazo". Tal el apellido ZEARAN, parejo al topónimo de Altamira (Busturia) UGARANE, a diez metros del río conocido por "Mape", que baja de las alturas del mismo nombre cerca de la cumbre del Sollube.

Pero aún hay más, y creo bastante definitivo por encontrarse en el País Vasco, pero a respetable distancia de Ereño. Me refiero al río que bajando de Larrune, corre casi paralelo al camino desde Sara a Vera y desemboca en el Bidasoa, y que creo movía la primitiva ferrería de "Fundiciones de Vera del Bidasoa". Me llamó la atención y observé que en el plano catastral su nombre es ZIAS (Cías). Creo que esta reiteración prueba mucho.

Dando por buena mi teoría, tienen explicación muchos apellidos y topónimos: ZEARRA, ZEARAN, con sus variantes ZIARRA y ZIARAN, todos ellos, vega; ZEARRETA, igual que IBARRETA, las vegas; ZEARSOLO, heredad de la vega; ZIARRUSTA, ZIRARRUISTA, ZIRARRURISTA...; ZIRARDA, apellido corriente en Mundaka (anterior CIARDA, v. "Historia Consulado de Bilbao", nombres de maestres de naos), la vega; y si me apuran mucho creo ver en ZEANURI una contracción de **ze(ar)anuri,* villa de la vega, como del "Ugarane", antes citado, hacen los naturales "Ugane" y "Uane", y de ARANE, en Ibarrangelua,

"Ane", y de ARANGOITI, en Deusto, "Angoiti". El Sr. Zabala, D. Pedro, cita un ZIGARROLA, como variante de *zearrola,* y lo mismo puede decirse de ZIGARAN, respecto de "Zearan", "Ziaran". Y sin meterme con ZIGA, ZIGOITIA..., cuyas circunstancias desconozco, permítaseme que sugiera para el ARAXES que baña Tolosa, la descomposición de **Aratz-zeas,* río del valle Aratz. Hace poco leí que un atleta popular, no sé si el aizkolari "Keixeta" o si "Luxia", era natural del caserío ARATZ-ERREKA, nombre éste que hace más verosímil mi sugerencia. También se puede incluir, tal vez, a ZEGAMA, al pie del Aizkorri, y yendo un poco más lejos, al río CIDACOS, que pasa por Calahorra, y el aun mucho más lejano CIFUENTES, afluente del Tajo, siquiera por su analogía con el apellido "Seaiturrialdea", citado más arriba.

A propósito de la posible sinonimia de los elementos "-arr", "-aran" agregados a voces genéricas de río para expresar "vega", "ribera"... no se puede dejar de anotar que, por los datos obtenidos hasta ahora, la raíz *iba(i)-* no admite su uso indistintamente como parece lo hace **zea-* en "ZEARRA", "ZEARAN", a menos que "Zearan" implique una mayor extensión que "Zearra", o viceversa. En cambio nos encontramos con un IBARRARAN, apellido, que abarca ambos elementos, y que traducido, si no es pleonasmo, por "valle de la vega", lo parece. Hacia el Bidasoa debe de existir un paraje ARANIBAR, compuesto por los mismos elementos que el anterior, aunque su traducción literal sería "vega del valle". También conviene señalar que debido sin duda a la proximidad de las montañas en Bizkaya, hay topónimos ARANE que corresponden a valles muy angostos o de extensión limitadísima, y que mejor que "valle" en un sentido de amplitud, les vendría la acepción de "cuenca", "ribera", "ribazo", es decir, "tierra junto al río".

Informado de que hacia Iziar (G), existía un paraje ZIARAN, he podido comprobar "sobre el plano catastral" un lugar de ese nombre, al sur de Lastur, a orillas de un arroyo, altitud sobre 180 m., en un pequeño barranco: lo cual parece una posible confirmación de mis teorías sobre **zea-, *zia-,* y la relatividad de la significación de extensión del elemento "-aran".

Como colofón, citaré dos palabras que encuentro en Azkue:

ibargi (B-mond), terreno soleado,
zearbegi (B-a-m-o), terreno costanero y soleado

que parecen probar la identidad de los elementos "ibar" y "zear".

15) **zen- *zena- *zene- *zeni-*.—Confieso que son pocas las razones que expongo, pero creo se tratan de variantes de **zea-*. Obsérvese que ZENARRUZA —existe allí un barrio ZIARREGI— los naturales lo hacen "Ziarrutza" o "Ziarrotsa", que tienen dos posibles significaciones: **zen-arrutza* o **zenarro,* cuenca del río+el sufijo de extensión *-tza,* o bien *zenar-utza,* el ejido de la vega o de la cuenca del río.—Subiendo por Berriz al monte Oiz, llama la atención la gran cantidad de manantiales que nacen en la ladera del ZENGOTITAGANE, y se pregunta uno sin querer si deberá su nombre: de **zen-goti-(i)ta-gane,* la cumbre del alto de los arroyos, con el pleonasmo de "goti" y "gane", que no será el primero, pues se da más claro aún en "Santa Marina de GANGURENGAN, como llaman al punto más elevado de la Sierra de GANGUREN, cercana a Bilbao. De admitirse esta posibilidad, un ZENDOYA tendría la misma explicación que UDOI lugar de fuente abundosa en la ladera occidental del Pagasarri y nacimiento del río AZORDOYAGA, afluente del Cadagua; ZENDAGORTA, ZENEKORTA, ambos, sel del río; ZENDOKIZ, en Ibarrangelua, el lugar del manantial o arroyo; ZENIGA, barrio de Zenarrutza, y ZENITA, en Elorrio, ambos, el arroyo o manantial, de los que el primero, en composición hace ZENIGAONANDIA y también ZENEKAONANDIA, pero asimismo ZENIKAZELAYA, debiendo advertirse que los naturales en lenguaje corriente dicen ZEINKA en vez de "Zéniga", de donde se infiere una cierta identidad de "-ita" = "-ika" = "-iga", como en GOROZITA y GOROZIKA, y en "Albóniga", cuando se habla en castellano, y ALMOINKA o ALMIKA, al hablar en vasco, como también los próximos de lugar a éste, ARTIGA y ARTIKA, y DEMENIGUS (anterior, "De Menigoi"), en castellano, y DEMIKO o DEMIKU en vascuence. De aquí que el apellido ZINKUNEGI, de origen próximo a Oiz, pueda tal vez descomponerse **zeneka-une-egi*> **zeinkun-egi*> 'Zinkunegi", la ladera de la cuenca del río, teniendo en cuenta la posible identidad de **zeneka-une* y **zeneka-arro.* (Cfr. "errekune" = "errekarro").

Sería oportunidad de traer a colación el apellido ZENARRO, barranco o cuenca del río? (Cfr. "errekarro"), que a mi parecer es anterior a EZENARRO. No es fácil el desdoblamiento o agregación de vocal ante **zen,* pero he podido dar con un caso, con la particularidad de que, por tratarse de euskerización de una voz castellana muy vulgar, no ofrece duda asignar a ésta la preceden-

cia. Sin embargo, la opinión general es de que "Zenarro" es una mutilación de "Ezenarro", al que Michelena incluso le atribuye un antecesor en ZEZENARRO (v. Ap. Vascos-Núm. 96). [Continuará]

Bernardo M.ª Garro

LABURKUNTZA

Bernardo Garro: Erreka-izenak, euskal-toponimian.

Iztegiak dakarzkienak baiño erreka-izen geiago daude euskeran. Gauza ikusgarria izango litzake ibai-izentegi oso bat edukitea, nola den erreka bakoitza eta zergatik duen bere izena esanez. Bizkaian dauden erreketako izenak baizik eztitu estudiatzen, ahoz erritik artu dituelako, eta Bizkaiko Boletinetik, "Uren Probetxamendua" deritzaion atalean.

Gero Azkueren Iztegitik aterako errekaren izenen zerrenda bat dakar; *ibai,* antxiñako itza, gaur bazterturik dagoena; *ibaso,* Lapurdin; *bidaso,* euskalgi berean, hemendik dio Azkuek datorrela Euskalerria zatitzen duen errekaren izena; *urandi; uraitz; egoatxa,* euskera galdutako Erronkarin; *latsa;* eta *erreka,* latiñetik dator itz au, baiña euskeran guztiz sustraitu delako, eztugu arbuiatu bear; gaiñera, itz onetarik beste asko datoz, eta ama arbuiatzen badugu, seme-alabak ere arbuiatu bear; *errekagune,* (Nafarroa bietan) "troka"; *erreka-lingirda, errekaño,* eta abar, "erreka txikia".

Hona emen, Azkueren lanari, Garrok berretzen diona: * *zea*: Galizian eta Leonen aurkitzen dira erreka batzuk izen honekin. Bizkaian ere, Ereñoko eleizaldeko buruari "Ceas de Ereño" deitzen diote, eta eskualde hura bustitzen duen errekak izen ori darama. Thalamasek "Aspectos de la Vida Profesional Vasca" liburuan, bitarikoak zirela erramenteriak dio: *agarrola* (ez ote da *agorr-ola,* galdetzen du Garrok), ur gabe igitzen bada, eta *zearrola* errekaren indarrarekin mugitzen bada. Hori berori diosku Larramendik ere bere Korografian. Orain etimologi-gaietan sartzen gara: *zear* eta *ibar* konparatzen ditu, eta gauza barbera direla diosku, ez bakarrik zentzunean, baita etimologi-formaziñoan ere: * *zea* +

ar = *zear, iba (i)* + *ar* ≡ *ibar*. **Zea,* orregatik, "erreka" da, eta *zearra* "ibarra". Sustrai honekin, euskal izen asko zer diren azaltzen du: *Zearan, Zearreta, Zearsolo* "ibarreko soloa", *Ziarrusta, Zirarrurista;* Zeanuri, Arratiako eleizalde polita, * *ze(ar)anuri* izango zen, "ibarreko iria"; *Zigoitia,* Tolosako *Araxes, Zegama, Zidakos, Zifuentes...*

* *Zea* orrek, seme batzut dauzka: * *zeni,* * *zene,* * *zen. Zenarrutza*-ri, angotarrek *Ziarrutza* diotsate. Altubek Eusko-Jakintzan eta Gernikan erakutsi zituen fonetica-arauak birresaten dizkigu, *Galdakano*: *Galdako, christiano*: *kristi(ñ)au,* eta bide batez euskal leku-izen eta famili-izen askoren etimologia ematen digu.

G. A.

DEIKIA ADITZETAN

Euskaltzaindiaren Itzaldiak Danostian

(1955 - ILBELTZA)

JAUN-ANDREOK: Juandako jardun-aldian, deikiari buruz, vocativoari buruz mintzatu nintzaizuten. Deikiari buruz era-bat. Bañan batez ere, deikiari buruz izenetan, declinacioan, izenen declinacioan.

Gaur berriz ere gai berari jarraitu nai diot: deiki vocativoaren gaiari. Bañan oraingoan ez bait-degu *deikia izenean* ikusiko, verboan baizik; deiki vocativoa aditzean, verboan...

* * *

Euskerazko Deikiak izenetan zer egiten duan azaltzeko, adibide-sail bat ipiñi nizuten nere orduko irakurraldiaren bukaeran. Deikiak izenetan eraxten duan eraxkuna bere zazpi edo zortzi eratan azaltzeko, zazpi edo zortzi adibide ipiñi nizkitzuten... Oroituko zerate oraindik sobra ere.

—Maria, nora zoaz,
eder galant ORI?
—Maria, zer nai dezu
eder galant ORREK?
—Maria, nik zer opa
eder galant ORRI?
—Maria, eder galant
ORREN ama nun da?
—Maria, eder galant
ORREKIN nai nuke...
—Maria, eder galant
ORREGAN daukat nik...
—Maria, eder galant
ORRENGANA nai det...
—Maria, eder galant
ORREGANDIK urrun...
—Maria, eder galant
ORI gabe ezin det...

Olakoxea dala gure Deikia esan nizuten orduan: olakoxea dala. Beste izkuntzetan Vocativoak izenari desinentzi bat eraxten dion bezela, euskeraz ORI bat eraxten diola. Bañan ez ORI bakarrik; ORI, ORREK, ORRI, ORREN, ORREKIN, ORREGAN, ORREGANA, ORREGANDIK, ORI GABE eta. etab. Ez dala, beraz, beste izkuntzetan bezela declinacioko casu bakar bat, casu guztiak baizik (ots, *nominativo, dativo, acusativo, posesivo, destinativo;* norki, noriki, zerki, norenki, norentzaki etab.); casu guztiak bere barruan dauzkan izketa-malla bat, izketa-kategori bat dala obeki: *categoría de interlocución.*

Bañan, ori bai, eraxkun ori, izena adjetivoren batekin datorrenean eraxten zaiola, eta ez izena bera bakarrik datorrenean. Bera bakarrik datorrenean eta askodun plural izan, orduan *-ok* atzizkia eraxten zaiola (JAUN-ANDREOK adibidez); eta bat-dun, singular danean, jator asko BAI, MOTELL esan oi dan bezela, BAI, JAUNA ere esan oi dala, ots, aldiz artikulu gabe, aldiz artikuludun... artikulu-gabea guri jatorrago baderitzaigu ere, eta artukuluduna etorki, arrotz...

Orixe da orduan, Deikiari buruz esan nizutena, orixe orduko nere irakurraldiaren gaia: "Deikia izenetan".

Deikia verboan, Deikia aditzean izango da gaurkoaren gaia...

Deikia aditzean, verboan

—Zer bada? izenetan ezik, verboan ere bai al-degu Deiki? —esango du norbaitek—.

—Bai.

Deikia, ez izenetan bakarrik, ez sustantivoetan bakarrik; verboetan ere ba'da.

Ikusiko dezute. Zagozkidate adi-adi, berealaxe bukatuko det eta.

Gure aditza, gure verboa...

Ba'dakizute, ezagutzen dezute, gure Aditzaren, gure Verboaren aberastasuna. Gure Verbo sonatuak, beste edozein izkuntzetako Verboak baño forma geiago ditu. Aien forma bakoitzeko, berrogeitaseiren bat forma guk.

Forma oietako bakotzari, esan-nai bat, *significacio* bat dagokio. Bakoitzak, egitearen nolatasun bat, *matiz* bat esan nai du.

"Egitearen nolatasun bat" esan dizutet. Bañan ez bait-da zearo egoki esana. Ara: Hebreozko Verboen formak bai, egitematiza, egitearen nolatasun zenbait esan nai izaten dute. Zazpi formatan erabiltzen ditu hebreoak bere Verboak: *Kal, Niphal, Pihel, Puhal, Hiphil, Hophal* eta *Hitpahel;* eta *Kal*-formak, egitea soillik eta garbi esan nai duan bezela, *Niphal'*ek egitea nor-berekoi (reflexivo) biurtzen du; eta *Pihel'*ek eta *Puhal'*ek indartsu (intensivo); eta *Hiphil, Hophal'*ek eragille *(Pihel* eta *Hiphil* egille (activo) diralarik, eta *Puhal, Hophal* eta *Hitpahel* jasotzaille (pasivo)). Olakoak izan oi dira egitearen matizak, egitearen nolatasunak: berekoi, indartsu, eragille etab.

Gure Verboak ere ba'du olako zenbait nolatasun; eragillematiza, adibidez: *egin, eragin; ekusi, erakutsi; ibilli, erabilli; eman, eraman, ekarri, erakarri;* eta *jan, janerazo; galdu, galerazo* etab (1).

(1) *Activa* ta *pasiva*, ots egille ta artzalle-matiza, berriz, ba'dirudi izkuntza oroen izatekoa dana.

Bañan gure Aditzaren, gure Berboaren *nolatasuna* aipatzean, beste zerbait esan nai degu guk. Ez *nolatasun*-matiza; *zer-nori*-matiza baizik, *matiz de realación*. Ala bait-da, izan ere. Beste izkuntzetako Verboak, egitearen *norkia,* egillea, besterik ez du aditzera ematen, Verboaren nominativoa, bere sei notin edo personetan: *ni, zu, ura; gu, zuek, aiek*... Gure Aditzak, berriz, norkiaz gañera, *zerkia* edo acusativoa, bere sei personetan; eta gañera *norikia,* dativoa, sei personetan ura ere... Olaxe ateratzen zaizkigu gure Verboaren erabilkeran, *bateko berrogeita sei* aiek.

Alaxe bait-da, izan ere. Begira bestela, onako adibide xume oiei. Lenengo, ogeitalau bakarrik azalduko dizkitzutet: erderazko HA TRAIDO bati dagozkion ogeitalau forma garbi, askatu. Begira:

Ekarri nau,	ekarri din
ekarri au	ekarri dizkin,
ekarri aune,	ekarri dio
ekarri du;	ekarri dizkio;
ekarri gaitu,	ekarri digu
ekarri zaitu,	ekarri dizkigu,
ekarri zaituzte,	ekarri dizu
ekarri ditu.	ekarri dizkitzu,
Ekarri dit	ekarri dizute
ekarri dizkit,	ekarri dizkitzute,
ekarri dik	ekarri die
ekarri dizkik,	ekarri dizkie.

Orra or ogeitalau forma, erderazko HA TRAIDO bakar bati dagozkionak. Eta, esan dizutedan bezela, oraindik beste ogeitalau, edo-ta ogei gañera. Guzitara berrogeitalau; eta, gero aipatuko ditugun beste birekin, orra or berrogeitasei. Berrogeitasei forma gure, aien forma bakar batentzat, edo-ta 4.600 %...

Aberastasuna ez bada ba!! Bañan, esan dedana: ez bait-dira egitearen nolatasun-adierazgarri, *zertasun* ta *noritasun*-adierazgarri baizik. Dana dala, aberastasun izugarria — zenbaiten iritzian *geiegia*... Bañan, ala izanda ere, ez bait-gera gu nor, aberastasun oiekin jarri-ta-kendu-jokoan asteko, dana dan bezela aztertu ta jasotzeko bait-gaude baizik... Eta orrela ez da gure artean iñor, gure baratz aberats ontan kimaketan eta iñausketan astea ontzat emango duanik... Eta jarrai dezagun aurrera.

Erabilkera alkarrizketatua

Ikus ditzagan orain, len esan gabe utzitako beste ogei forma aiek. Bañan oar bat lenago.

Ba'dakizute, gure Verboak, gure Aditzak —erderazkoak ez bezela— besteak beste, erabilkera bi, conjugacio bi dituana: askatua edo *absoluto* deritzana bata, eta alkarrizketatua, *dialogatua* bestea. Adigarriz: *Ekarri du,* erabilkera askatua; *Ekarri dik,* erabilkera alkarrizketatua, dialogatua.

Verbo guztiak dituzte erabilkera bi oiek. Eta len azaldu dizutedan HA TRAIDO'ri dagokion *ekarri*-sail ura, ain xuxen, erabilkera "askatua" izan da. Bañan arek ere izan bait-lezake erabilkera alkarrizketatua ere; ona orain forma aien erabilkera alkarrizketatuari dagozkion beste ogei formak:

Ekarri natxiok	ekarri zione
ekarri natxione (1),	ekarri zizkione,
ekarri gatxik	ekarri ziguk
ekarri gatxiñe.	ekarri zizkiguk,
Ekarri zidak	ekarri zigune
ekarri zizkidak,	ekarri zizkigune,
ekarri zidane	ekarri ziek
ekarri zizkidane,	ekarri zizkiek,
ekarri ziok	ekarri ziene
ekarri zizkiok	ekarri zizkiene.

Ba dakizute, elkarrizketako erabilkera onek, bere ezagungarri bezela, eraxkun bat izan oi duana: *dik'* en azkeneko *-k* ori-edo *(ekarri du, ekarri dik)* (2)

Orra bada —eta oraintxe dator, ain xuxen, Deikiari buruz gaur esan nai nizutena—: Erabilkera alkarrizketatuaren ERAXKUN AU, DEIKIA DA, VOCATIVOA DA; Deikiak sartzen du Verbo-barruan, gure Aditzean. *Dik*'en *-k* eraxkun au, Izenean ORI ura bezela, Deikiaren adierazgarri bat da, Vocativoaren itzal eta errañu bat, Verboan.

---

(1) Lenagoko sallan esanak bezela, ez ditugu emen ipintzen sei forma oiek: *ekarri au, ekarri aune; ekarri dik, ekarri dizkik, ekarri din, ekarri dizkin.*

(2) Eraxkun au, ordea, ez bait-da, beti-beti, *-k* ori bezela, atzizki, sufijo izaten. Aldiz-aldiz barru-eraxkun bat, infijo bat izan oi bait-da. Eta aldiz, berriz, beste zerbait. *Ekarri dik* eta *ekarri din*'en, bai, atzizki, sufijo bat da *(-k,-n). Ekarri dikat, -ekarri diñat*'en, ordea, barru-izki bat *(-ka-naj.* Eta *etorri aiz, etorri intzan*'en, berriz... beste zerbait.

Ika ta zuka...

Oar bat, aurrera jarraitu baño lenago.

Verboaren erabilkera elkarrizketatua, era bitakoa dala. *Ikakoa* bata; eta *zukakoa* bestea. *Zukakoa,* itzalezkoa, errespetuzkoa; eta *ikakoa,* laua, edozeñentzakoa, *ika-ta-tokakoa, i-ta-nokakoa...*

Azaldu dizutedan alkarrizketako erabilkera-sail guztia, *ikakoa* izan da *(Ekarri natxiok, natxione; ekarri zidak, zizkidak* etab.). Igarriko zenduten. Eta bear bada, orregatik norbaitek uste zezakean, ikakoa beste erabilkera elkarrizketaturik ez ote-dagon. Bañan ez bait-da ola. Zukako alkarrizketa-erabilkera ere ba'degu euskeraz. Zukako deiki-eraxkunak ere ba'ditugu. Ikakoak bezain oparo ez bañan. Ona emen HA TRAIDO'ri dagozkion biak. Biek irugarren personako zerkiari dagozkio: *Ekarri du? ekarri dik, din* (ika), *ekarri dizu* (zuka); *Ekarri dizkik, dizkin* (ika), *ekarri dizkitzu* (zuka).

Beste oartxo bat azkeneko forma oni buruz. Zabalgune txikia duala, batez ere Verbo zerkidunetan, Verbo transitivoetan; pixka bat aundiago Verbo intransitivo, zerkigabeetan: ots, txikia *ekarri*'gan, pixka bat aundiagoa *etorri*'gan. Dana dala, napar eta laburditarren artean noiz-nai entzun oi dira auek edo oien antzeko formak: *Etorri nauzu, etorri duzu; etorri gaituzu, etorri dituzu... Etorri nauzu, etorri nauk*'en berdin; *Etorri duzu, etorri duk*'en berdin; *etorri gaituzu, etorri gaituk*'en berdin; eta *etorri dituzu etorri dituk*'en berdin... Gipuzkoeraz eta Bizkaieraz, ez, ez dira ain entzunak, gazte-jende-artean batez ere.

Beste oartxo bat: Zerki-gabeko Verbo baten, ots Verbo *intransitivo* baten erabilkera askatua, alkarrizketatu biurtzean, zerkigabetik zerkidun, *intransitivotik transitivo* biurtzen dala. Adibidez: *Etorri naiz* bat, *etorri nauk* edo-ta *etorri nauzu* biurtzen dala, *etorri* ez baño *ekarri* balitz bezelaxe. *Ekarri nauk? ETORRI NAUK; Ekarri nauzu? ETORRI NAUZU* etab. Azpikoz-gañeratze ikusgarria bait-da auxe, gerotxuago esango degun bezela.

Eta jarrai dezagun aurrera.

Alkarrizketakiak

Eta nolakoak dira ba, Verbo askatua Alkarrizketatu biurtzeko, Deikiak Verbo-barruan sartzen dituan eraxkun edo zatiko aiek?

Ba'dakizute, gure Aditzaren, gure Verboaren berexkuntzarik aundienetan bat, bere bizkarreratzen duan izki-zama aundi- aundia dana. Beste izkuntzarik geienetako Aditzak, bi edo iru izki, elementu, bakarrik bere soñeratzen, bere gañeratzen dituzte: zuztarra ta egillea eta beste uskeriren bat bakarrik: *ama-mos, ama-ba-mos, ama-re-mos (ama*-zuztarra; *-mos,* egillea; *-ba-,* -regaraia)... Euskerazko Aditzak, ordea, beste elementu bi geiago bizkarreratzen ditu gutxienez: egilleaz gañera, *norkez* gañera, *zer* eta *nori*: *da-kar, da-kar-gu, da-kar-kio-gu;* ta beste uskeriren batzuek gañera (dakarzkitzutegu, da-kar-zki-tzu-te-gu)...

Orra bada: Verboari, erabilkera alkarrizketatuan erabiltzen degunean, oraindik beste eraxkun bat geiago, beste pusketa geiago ere sartzen diogu: gure izketa-lagunari, interlocutoreari dagokion beste pusketa bat: izketa-laguna gizasemea bada, bat *(-k),* eta emakumea bada, bestelako bat *(-n).*

Beste itz batzuetan: beste izkuntzetako Verboak, nominativoaren pusketa bakarrik darama bere soñeratua, zuztarrari erantsia (ama-MOS); euskerazko Aditzak, *norki,* nominativoaz gañera, *zerki,* acusativoa *(dakargu, -kargu* = traemos, *da-* = lo, *da-kar-gu* = lo traemos) eta gañera *noriki,* dativoa *(dakarkiogu: dakargu* = lo traemos; *-kio-* = le; *dakarkiogu* = se lo traemos a él)... eta, erabilkera alkarrizketatua danean, dialogatua danean, *vocativoa, DEIKIA* gañera, ots, *izketa-laguna,* interlocutorea *(zekarkionagu*: *zekarkio(ka)gu* = se lo traemos, eta erdiko -NA*tú* fem., *zekarkionagu* = tú, se lo traemos). Beste puxketak nominativoari, ta acusativoari, ta dativoari dagozkion bezela, puxketa berri au, vocativoari, DEIKIARI dagokio. Deikiari, paragrafoan ezkutatzen dan *zu* arri, lengoan aipatu nizuten *ZU* edota *I* arri.

Esan dezagun berriz ere: *Zekarkio (k)at. zekarkionat.* Begira zenbat pusketa dituan forma onek: *ze-kar-kio-(k)a-t*: *ze,* acusativo, zer ekarri; *kar,* aditz-zuztarra, ekarri; *kio, dativo,* nori ekarri; azkeneko *-t,* nominativo agente, nork ekarri... eta tartean gelditzen zaigun *-ka-* edo *-na-* ori, vocativo, deiki, izketa-lagun, interlocutore, tartean beti dabillen *zu* edo *i*'ri dagokiona.

Orixe da, esan nai nizutena. Gure Aditz-formak, olakoxeak dirala, orren ondotxo zamatuak. Eta bizkarreratzen dituzten puxketaetan, eraxkunetan bat, orixe dala: deikiari, vocativoari, izketa-lagunari, *zu*'ri edo *i*'ri dagokion zatixka, eraxkuna.

Emen berritu ditzakegu, lentxuago "bateko 46" artan aipatu ditugun *ikako* forma alkarrizketatu guzti aiek: *Ekarri natxiok,*

ekarri natxione; ekarri dik, ekarri diñe; ekarri gatxik, ekarri gatxiñe; ekarri dizkik, ekarri dizkiñe... Forma guzti oietan, erabilkera askatuari *-k-* ta *-ne()* bat eraxten zaio, besteak beste: *Ekarri du, ekarri dik, ekarri diñe; ekarri ditu, ekarri dizkik, ekarri dizkiñe...* (1).

Dativo etico?

Ba' dakit zenbaitzuk, *vocativo* oni, Deiki oni, *dativo ético* esaten diotena.

Ez gera geiegi asarretuko orregàtik.

Nik, ordea, lendik *vocativo* izena egonik, ez bait-dakit zergatik sortu bear degun beste itz berri bat, len ezagutzen etzan kategori berri bat arkitu bagendu bezela. Ez dago kategori berririk. Len eta beti, *vocativo* esan izan dan casoa besterik ez da, nere itzaldi guzti ontan ikusi dezuten bezela.

Ikustagun nundik eta nola sortu ote-dan *dativo-ético*-deitze ori. Au ere adigarriz egingo degu, bidea errezago dedin.

Ona adigarri bat: *Ekarri dizkiat* edo-ta osoago *ekarri dizkikat,* naiz emakumezko *ekarri dizkiñat.* Ikako *Ekarri dizkikat* au, zukako beste onen antzekoa da, *Ekarri dizkitzut (dizkitzut, dizkikat).* Eta *dizkitzut* ontan, itz-barruko *-TZU-* ori, dativo izan oi da *(zuri ekarri dizkitzut).* Beraz orren leku berean dauden *-ka-, -na-* oiek ere dativo bear dute izan.

Ondo legoke arrazoi-bide au, adigarri ori besterik ezpalego. Bañan bai bait-dira beste adigarri geiago ere, adigarri onengandik bestelako askoak.

Egia: adigarri orretan, izketa-lagunaren eraxkuna (*-ka-, -na-*) dativoaren leku ber-berean dago, dativoaren gañean kalkatua. Eta orixe da, izketa-lagunaren eraxkun orri, *dativo*-antza ematen diona. Bañan beste zenbait adigarritan berdin arkitzen bait-degu *nominativo* egillearen gañean kalkatua; eta beste batzuetan

(1) "Besteak beste" diot; eta *ekarri natxiok'*en-*txi (o)* orri buruz diot batez ere... ez bait-dagokit orain neri *-txi-* ori zer dan aditzera amatea... *-k (a)-* ta *n(e)* oiek bakarrik bait-dira gaur neri dagozki danak; eta esan dizutet esan, izkitxu oiek Deikiari dagozkion zatitxoak dirana eta ez besterik.

acusativoaren gañean; beste batzuetan, berriz, iñoren gañean kalka gabe.

Begira: *Ekarri nauk* esatean, izketa-laguna ta *nominativo* egillea (nork ekarri) dira elkarren gañean kalkatuak, edo-ta biok bat-bedera: *Ekarri nauk = I, ik ekarri nauk ni = (Tú, tú me has traído a mí). Ilko au(kat)* edo-ta *Ilko aunat* esatean, berriz, izketa-laguna ta acusativoa (nor ilko) daude elkarren gañean, edo-ta biok bat-bedera: *Ilko aunat = I, nik ilko aunat i. (Tú, yo te mataré a ti).* Len *ik* egille, nominativo; orain *i* zerki, acusativo.

Adigarri oien araueran, izketa-laguna diogun ori, ez da dativo bakarrik (dativo ético); dativo ta nominativo ta acusativo ere ba'da...

Esan dezagun garbiki: ez dativo, ez nominativo, ez acusativo... vocativo baizik... euskerazko arako vocativo, Deiki jator ura baizik; bera bait-da, lengoan esan nizuten bezela, bai nominativo, bai dativo, bai acusativo... ta gañerakoak gañerako.

Ikus, bestela, onako beste adigarri au: *Etorri naiz.* Aditz-formatxo askatu txiki onek, ez du zati bi besterik: nominativo (nor etorri) *na-*, ta aditz-zuztarra *-iz.* Bañan biur dezagun formatxo askatu au, biur dezagun alkarrizketatu, dialogatu, *Etorri nauk.* Zer gertatu zaio? Izketa-laguna erantsi diogula *(naiz? nauk)*: *-k* bat erantsi diogula. Bañan *-k* ori ez bait-da, ez nominativo, ez dativo, ez acusativo; ez *nor* edo *nork*, ez *nori*, ez *zer;* vocativo soil-soillik, baizik. *Etorri nauk'* en azkeneko *-k* ori, soil-soillik vocativo da, deiki da: *I, etorri nauk* esango balitz bezela-bezelaxe, edo-ta beteago: *Aizak i, etorri nauk ni; Aizan i, etorri naun ni...*

* * *

Dativo ético deitze ori, sortu zeikean beste zerbaitetik ere.

Lengoan ere esan nizuten, vocativo bakoitzean ZU ta I bat ezkutatzen dala; vocativo bakoitzean, gutxi-gora-bera, aopean-edo, arako Ebanjelioko ura esan oi degula: *Adolescens, tibi dico, surge*: Muchacho, A TI TE DIGO, levántate: *Gazte, IRI DIAT, jeiki adi. IRI DIAT, IRI ESATEN DIAT* entzuten bezela degula, alegia, geuren barrunbean, deiki bat, vocativo bat esaten edo entzuten degun bakoitzean; eta berdin, baita, *IKA* ta *NOKA* iñorekin izketan diardugunean. Eta *IRI* ora dativo, noriki bait-da... Ortik sortuko zan, bear bada, *dativo ético* deitze ori.

Bañan "barrunbe ortan IRI bat ezkutatzen dala" bezelaxe esan bait-dezakegu AIZAK I bat ezkutatzen dala ere. Eta AIZAK I ortan I ori ez bait-da dativo, vocativo baizik, deiki baizik...

* * *

Emendik atera dezakegu nolako zabalgunea duan Deikiak gure Gramatikan, nolako zañak dauzkan gure izkuntza guztian, gure mintzatzeko tankera ta formaetan: izenetan lenengo; ez bait-da declinacioko casu bakar bat, casu guztiak dituan izketamalla bereiz bat baizik; eta verboan gañera; verbobaren erabilkera álkarrizketatuan antxe bait-dabil beti, norki ta zerki ta noriki guztiekin nahasian eta trabaturik, ajedrez-joku berdiñik gabe betean bezela, orain emen, urren or, gero an... bañan beti ere tauleroan, beti ere mayean.

Psikologi apur...

Eta gure Euskeraren berexkuntza bat orain, berriz ere.

Lengo eguneko irakurraldian Euskeraren berexkuntzak aipatu nizkitzuten. Eta gaurko irakurraldi au ere Euskeraren berexkuntza batez izan da, gure Izkuntzaren berexkuntza, apartetasun bati buruz. Bañan egun artako berexkuntza, Gramatikari dagokiona zan; gaurkoak, ordea, Gramatikari dagokion arren, ba du, orratik, beste usai bat ere, Gramatika'tik asi, ta Psikologiaraño eltzen dan usai bat. Zagozkidate adi-adi, eta berealaxe adituko didazute esan nai nukeana.

"Berexkuntza bat" esan dizutet; eta, bear bada, ez bat, bi baizik azalduko dizkitzutet, Esau ta Iakob bezela, elkarren ondotik orporik-orpo jaiotzen diran berexkuntza bi.

* * *

Begira. Erderaren Psikologia aztertzen dabiltzan jakintsuak, gauzatxo baten konturatu dira: *Tendencia personalizadora,* ta *Construcción refleja con verbos intransitivos* azaltzen dala aldizaldiz erderazko verbo-erabilkeran eta adibide bezela onako adigarri oiek aipatzen dituzte: *el cántaro SE sobra* edo *SE sale; esta casa SE llueve; NOS ha llovido todo el día; SE LE murió el hijo; ME estoy helando...* edo-ta *yo ME lo guiso, yo ME lo*

como (Vid. Américo Castro —*España en su Historia. Cristianos, moros y judíos*—, Buenos Aires, 1948, pág. 222).

Construcción refleja esaten zaio guzti oni; *construcción refleja* ta *tendencia personalizadora.* Eta guzti ori Sorkaldeko izkuntzetatik omen-datorkio Gaztel-erderari: ots, Arabetik eta Hebreotik. Izan ere, izkuntza oietan ba'da forma bat (lentxuago aipatu dizutedan forma *Niphal* ura-edo hebreoz bigarren forma bait-deritza, eta arabez laugarren forma) egiteari norberekoiantza ematen diona, *valor reflexivo* ematen diona.

Ez degu ukatuko —ezta gutxiagorik ere— makurtasun ori (berekoitasunerako nai ori) erderazko Verboari Arabetik eta Hebreotik etorri zaionik. Ez degu ukatuko. Ezta gutxiagorik ere. Ain xuxen, Euskerak bere reflexivoak bere berekoi-formak egiteko beste bide bat ibilli oi du: guztiok dakizuten, arako *nere burua, zure burua,* ta *bere burua,* erderak *me, te, se* erabiltzen duan bezela...

Ez det gure Euskerarentzat eskatuko, erderaren makurtasun orren iturburu izaterik. Ain xuxen, nik gaur erderaren Psikologi orren, kontra-kontrako beste Psikologi bat azaldu nai nizukete. Erderak *me, te, se* (yo *me* lo guiso, ya *me* lo como) bezela, Euskerak, aitzitik, eta kontrara, beti *te, te, te,* (ots, *yo te lo guiso, yo te lo como)* esan oi bait-du. Igarriko dezute nola. Bere Verboaren erabilkera alkarrizketatuan, beti ta beti Deiki *i* edo *zu* ori (ots, k, *n* edo-ta *zu)* erabilliz... (1).

Auxe da gure Euskeraren Psikologia, gai ontan. Erderarentzako benetako kontra-Psikologia. Erderak, forma berekoiak; Euskerak forma bestekoiak. Erderak, esku bildua duala; Euskerak esku zabala... izketa-lagunarengana zabaldua.

Orra or berexkuntza bat. Eta ez txikia.

Adigarri batzuek argituko digute esaten deguna.

Erabilkera askatuko *Ekarri du,* erabilkera alkarrizketatuan *Ekarri dik* da: *Ekarri du* "Lo ha traído"; *Ekarri dik* "TE lo ha traído". *Ekarri gaitu* "Nos ha traído": *Ekarri gatxik* "TE nos ha traído"; *Ekarri ditu* "Los ha traído"; *Ekarri dizkik* "TE los ha traído"... Eta olaxe beti ta beti, erabilkera alkarrizketatuan diardugunean. Erderaz, *ME lo, TE lo, SE lo* dan artean, euskeraz

(1) *Te, te, te,* esan dizutet: olaxe, dativo balitz bezela, *dativo ético* balitz bezela (ola esaten bait-diote, ain xuxen, askok erderazko forma orri); baña egiz ta benetan deiki bezela, vocativo bezela, izketa-lagun bezela, dialogante bezela, interlokutore bezela.

beti *TE lo, TE lo, TE lo,* beti izketa-lagunari deituaz, ari itza zuzenduz ari omen egiñaz...

...Eta euskaldunok bakartiak gerala esango dute gero! Bakartiak, individualistak gerala... Eta, bitartean, gure Verboan, gure Aditzean, nundik izketa-lagunari omen eta agur egingo diogun gabiltza beti, zoratzen bezela.

...Ara: izenetan eta adjetivoetan ez degu generorik; ez gizaseme, ez emakufe, ez ar, ez eme (generoa diot, atzizkia, alegia). Izenetan eta adetivoetan ori. Verboan, berriz, antxe azaltzen zaigu ar-emeki, generoa; ez, ordea, egillearen generoa, ez eta iztunaren generoa ere; izketa-lagunarena baizik. Izketa-lagunarentzat ditugu gure txera ta itzal ta errespetu guztiak. ¡¡Eta bakartiak gerala!! Ez gerala sozialak!... Zer ote-litzake sozialak bagiña!

Eta orixe da, lenengo berexkuntzatik, orpoz-orpo erantsirik jaiotzen dan bigarren berexkuntza: Euskeraren gizartetasun nabarmena, gure izkuntzaren sozialtasun ederra.

Yo te lo guiso, yo te lo como

Kontraste onen adibide bezela ipiñi ditzagun orain adigarri batzuek. Nola litzake euskeraz *Yo me lo guiso, yo me lo como* ikako izkuntzan? *Neronek egosten diat, eta neronek jaten diat;* edo-ta noka, *Neronek egosten diñat, eta neronek jaten diñat;* bañan euskerazko itz oiek, erderara itzez-itz biurtuzkero, *yo Me lo guiso, yo ME lo como* eman bearrean, *yo TE lo guiso, yo TE lo como* ematen digute. Ez bait-da txantxetako bestelakotasun ta kontrastea!! Orixe da, bada, gure Verboa, berekoi ez baño, reflexivo ez baño, *bestekoia* dala esatean, esan nai deguna.

Ikustagun, beste adigarri aietan bat geiago. *Construcción refleja con verbos intransitivos* diote Psikologoak dagola aldizaldiz erderazko Verboen erabilkeran: *Construcción refleja con verbos intransitivos* dagola. Ots; demagun erderaz verbo intransitivo bat, impersonal bat, nai badezute: *llueve.* Begira zer dioten Izkuntzaren Psikologi-zaleak: impersonal au *personalizatu* egiten dala erderaz askotan, eta *reflexivotu* edo-ta berekoitu, SE baten bitartez, denbora berean; onela: *Llueve en esta casa* esan bearrean, *Esta casa SE llueve* esan oi dutela erdaldun jatorrak. Eta euskaldunok zer? *Eudi egiten dik etxe onetan;* edo-ta *Eudi*

egiten dizu etxe onetan; itzez-itz *TE llueve en esta casa...* An *SE llueve;* emen *TE llueve...* Len esan deguna: aien Verboa berekoi; gurea bestekoi, *zu*koi, *i*koi...

